

GARAZI AYESTA TXURRUKA



Junkal eta Carlosen alaba, elgoibartarra. 30 urte ditut, eta Elgoibarren bizi naiz. Umetatik, kazetaritza eta komunikazioarekiko interesa piztu zitzaidan, eta Ikus-entzunezko komunikazio gradua ikasi nuen Mondragon Unibertsitatean. Han, unibertsitateko klaseak (eta ostegunetako parrandak) nire lehen lanarekin uztartu nituen, eta MUTBn, unibertsitateko telebistan, kazetari eta aurkezle moduan egin nuen lan, bekadun. Gradua amaitu aurretik, Goiena Telebistan EITBko albistegietan ere egin nituen praktikak. Eta 2015az geroztik, EITBn nago lanean. Bilboko egoitzan, edo Euskal Herriko edozein txokotan, albistearen arabera.

Pandemia garai gogorra izan zen kazetariontzat ere, eta, urte haietan, albistegietako Gizarte gaien arloburu lana egitea egokitu zitzaidan. Hamaika elkarrizketa, erreportaje eta interes informatibo handiko egunak kubritu eta kontatu ditut, aspertzeko astirik gabe. Telebistako kazetaritzaren mundua ezegonkorra izan daitekeela jakinda, Komunikazio korporatiboko eta Krisi komunikazioko Masterra ikasi nuen, hedabideetatik enpresetararako atea zabalik egon zedin, baina egun, oraindik, ez dut "alkatxofa" edo eskuko mikrofonoa askatu. Badakizue, gustuko tokian... aldaparik ez.

Urte hauetan, enpresa, erakunde eta instituzioen ekitaldiak ere aurkeztu izan ditut tarteka, eta, orain, Brunaren ipuinaren narratzaile bihurtu naiz proiektu honetan. Bihar, auskalo.